



IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA
ZERBITZUA



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

R400: IKASMATERIALAK EUSKARAZ PRESTATZEKO IKASTARO PRAKTIKOA

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA 365 ordu inguru (hiruhileko bat)

HARTZAILEAK Herri-ikastetxeetako langileak: irakasle funtzionarioak, finkoak, bitartekoak; Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak.

HE2, EGA edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara maila dutenak.

ORDUTEGIA Goizez, bosna ordu

LEKUA

HASIERA

AMAIERA

Donostia, Eibar, Gasteiz, Bilbo

2019/09/06

2019/12/20

HELBURUAK Euskaraz ikasteko edo irakasteko materialak ekoiztea, ikasleen ezaugarriak egokituak eta curriculumaren araberakoak, eta, aldi berean, hizkuntza-gaitasuna hobetzea, sakontzea eta sendotzea.

EDUKI NAGUSIAK Ikasketariak IRALEko irakasle-tutoreen laguntzarekin prestatuko dituzte materialak, eta edukiak ikasketari bakoitzaren premiei egokituko zaizkie, betiere hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna bermatzeko.

OHARRAK Ikasketari-nahiek (bakarka edo taldeka) egitasmo-txosten labur bat prestatu beharko dute 2019ko maiatzaren 3rako, landu nahi dituzten ikasmaterialek ezaugarriak azaltzeko:

- Egitasmo-txostena prestatzeko [gida](#).
- Ikastaroan parte hartuko duten ikasketariak aukeratzeko, aurkeztutako egitasmo-txostenen balioespena egingo du IRALEk, irizpide hauekin: egitasmoaren egingarritasuna, materialen aplikagarritasuna, lanaren deskribapenaren zehaztasuna eta hizkuntzaren kalitatea.
- Euskarazko materialak sortzeko premiazko arloak: Lanbide Heziketakoak; Batxilergoan zein DBHn euskarazko material gutxi duten irakasgaietakoak; Euskal kulturarekin lotura duten eskola-materialak.
- Hezkuntza Sailak hartuko du materialak argitaratzeko eta katalogatzeko ardura.

ZIURTAGIRIA

Ziurtagiri digitala eskuragarri: www.irakasle.eus → Irakaslegunea